



**ANTONIO MARIA LABAYEN**  
**(1898-1994)**

Egilea:

**AINHOA BEOLA**

Antonio Maria Labayen Toledo 1898ko abenduaren 1ean Tolosan sortu, eta bertan hil zen 1994ko urriaren 12an. Ama, Maria Cruz Toledo Vitoria zuen, eta aita, berriz, Juan Francisco Labayen Pellejero (Argentinan jaioa hau).

Antonio Maria Labayen Uliako Carmen Sansinenea Goñirekin ezkondu zen; Ramon eta Martin dira bien semeak.

Tolosako Eskolapioetan burutu zituen lehen ikasketak, eta ondoren Zaragozara joan zen, bertan Komertzio Eskola Nagusian amaitzeko ikasketak. Handik bueltan familiaren lantegian hasi zen lanean.



Antonio Maria Labayen euskal teatroak izan duen egile oparoenetakotzat jo daiteke, dudarik gabe



Garaiko idazleekin eta kulturgintzako beste egileekin hartu-eman ugari izan zuen Labayenek. Hemen Tolosan ageri da

## ABERTZALETASUNA

Politika-gizona baino, Antonio Maria abertzalea zela esan behar da. Euskaltzaletasunak eta abertzaletasunak bultzaturik, politika-kontuetara gerturatu zen denborarekin, baina gure egileak inoiz ez zuen bere burua halakotzat sentitu. Bizkai Buru Batzarreko buru zen Doroteo Ziaurriz lagun minaren eraginez-edo, politikaratu zen.



Sarako erbesteren izan ziren biak, Antonio Maria Labayen eta Doroteo Ziaurriz lagun minak

Honela, 1931n Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean zinegotzi hautatu zuten, bai eta bi urte beranduago alkate hautatu ere. Alkatetzan 1936 arte jardun zuen, gerra zibila iristearekin batera, erbestera alde egin behar izan baitzuen familiarekin. 1937an Naciones y Estados izeneko kongresura bidali zuten Euzko Jaurlaritzaren ordezkari gisa Londresera.

Bigarren Gerrate Mundialean, Frantzia ere erortzean, Argentinan diputatu zen Juan Labayen lehengusuak hara joan zitezten gonbitea luzatu zion, hala ere, Sarara erbesteratu eta bertan zortzi urte igaro behar izan zituen. Handik bueltan, Tolosara egin zuen itzulera.

Errepublikara garaian eragin berezia izan zuen bai inguruko artean, bai eta garaiko euskaltzaleen artean ere —izan ere Lizardi, Orixe eta Aitzolen laguna zen, besteak beste—.

Saran atzerriratuta egon zela, *Eusko Jakintza* eta *Gernika* aldizkarietan maiz idatzi zuen, gehienetan ezizenak erabiliz. Urte hauetan Iparraldeko literatur tradizioaz eta bertako euskaraz jabetu zen, ondorengo lanetan baliagarria izan zitzaiona bere obra eta euskara aberasteko garaian.

## MUSIKA

Antonio Maria Labayenen zaletasunetako bat musika dugu. Biolina ere jotzen zuen ahal zuela. Saran erbesteraturik zegoela, bertan lan egitea debekatu ziotenez, biolina jotzen, mendian ibiltzen eta idazten ematen zituen egunak.

Idazle zen horretan, musikari buruzko artikuluak idatzi zituen, hauen artean dugularik 1949an *Eusko Jakintza*-n ageri den «Bibliografia musical vasca» lana.

«Pequeña historia del violín en Tolosa» lana 1979. urtean eman zuen argitara BRSVAP buletinean; bertan Cremencio Galicia Arrue biolin-joleari buruz jardun zuen.


## MENDIZALETASUNA

Bere anaia Frantziskorekin (Pantxo) mendian ibiltzea maite zuen. Igoera hauetan ezagutu zuen J. San Martin.

Tolosan bizi zela, igandero mezatik irten-eta, Uzturre aldera joateko ohitura zuen. Era berean, Saran izan zenean, Lizuneko basora eta inguruko mendietara maiz joana zen perretxiko bila.

Aralarko Adiskideak elkarteko kidea zen, eta bertako babes-etxearen egileetarikoa dugu Labayen.

Mendiarekiko maitasunak bultzatuta, idatzi ere egin zituen hainbat artikulu *Pyrenaica* mendi-aldizkarian. Hauetako bat dugu Patxi Tudurirekin Larrañetik Erromendin barna Orhiko gailurrera igo ondoren idatzitakoa 1926an.



## IDAZLE OPAROA

Antonio Maria Labayenen obran, kasik genero guztiak aurki daitezke, nahiz eta dudarik gabe antzerkigintzan izan zen nagusi. Halere, bere obran zehar itzulpen-lanak, biografiak, antzerki-mota desberdinak eta hauetan ageri diren bertsoak, artikuluak, entseguak, kritika-lanak, eta euskara batuaren inguruko liburuak nabarmentzeko lanak dira.

Emeterio Arreseren lanak ere argitaratu eman zituen Labayenek aldizkarietan, bere sarrera-hitzekin



Izenorde ugari erabili zuen, Saran zegoela idatzitako lanetan bereziki. Hauen artean Ibalan, Matxingorri, Aspaldiko, L. Ayanbe eta Etxekorena ditugu besteak beste. Benito Vitoria ezizena askotan erabili zuen, Benito baitzuen Labayenek hirugarren izena, eta amonaren abizena, berriz, Vitoria baitzen.

Gaztetan hasi zen lehen lanak argitaratzen, eta azken urteak arte lanean jardun zuen etenik gabe. Erbesteturik izan zenean ere, idazten jarraitu zuen, nahiz eta argitaratu ezizenekin egin.



Jon Etxaideren antzerki-lana aipatuz, Aspaldiko ezizenarekin sinatu zuen iritzi-artikulu



## ALDIZKARIAK

Gazterik hasi baitzen idazten, garaiko aldizkarietan Labayenen lan ugari topa daiteke. Honela, *Euskal Esnalea*, *Euskal Erriaren Alde*, *Euzko-Gogoa*, *Munibe*, *Eusko Jakintza*, *BRSVAP*, *Yakintza*, *Karmel*, *Argia*, *Zeruko Argia*, *Gure Herria*, *El Día*, *Olerti*, *Goiz-Argi*, *Herria*, eta abarretan egilearen idazlanak ageri dira.




*Euskal-Esnalea*-n hainbat artikulu idatzi zuen euskal teatroaren nondik norakoan inguruan

Aldizkariotan antzerki-obra asko argitaratu zuen atalka. Artikulu iritzi-emaileak eta beste idazleei buruzko lanak ere, hauetan aurki daitezke.

Bestetik, *Antzerti*, *Euskal Erriaren Alde* eta *Berrizalek* aldizkarietan teatro-lan asko argitaratzeko aukera izan zuen. Neurri batean argitarapen hauen funtsa ere bilakatu zen gure egilea, garaiko beste idazleekin batera.



Antzerti aldizkarian argitaratu zuen *Irunxeme* obra



*Euskal Esnalea*-n euskarazko antzerkiari buruzko lanak eman zituen argitara; honakoa dugu haietako bat






## SAIAKERA LANAK

Nabarmenetako bat dugu Euskal Herriko papergintzaren inguruan 1947an argitaratu zuen *Escenas papeleras* lana. Gaiaren inguruan ere «En un lugar llamado Erasote» artikulua idatzi zuen 1970.ean *Investigación y Técnica del papel* aldizkarian.

1951ean *Compendio del Poema Euskaldunak de Orixe* argitaratu zuen. Bertan, Orixeren obraren nondik norakoak azaltzen dira, Labayenek miresten zuen idazlea izanda.



Ikerketa-lanen artean Tolosa aldeko toponimiaren ingurukoa dago, separata moduan argitaratu zena



Separata gisa argitaratu zen *Juduak Euskal-Errian* ikerketa-lana

1967an *Tajuz eta Zentzuz* lana argitaratu zuen, Txillardegik idatzirik *Huntaz eta hartaz* lanari aurre eginez.


*Juduak Euskal-Errian*, *Israeldarrak Naparroa'n* lanean judutarren nondik norakoak Euskal Herriko lurraldeetan aztertzen ditu. Honela, Nafarroatik hasi eta Baionaraino, Gipuzkoa eta Bizkaitik barna, judutarren historia aztertzen du.

## ANTZERKI ZALETASUNAREN OINARRIAK

Lehen ikasketak Tolosako eskolapioetan egiten ari zela, piztu zitzaion Labayeni teatroarekiko zaletasuna. Garai haietan Ramos Azkarate Otegi (1847-1904) zapatagina zebilen teatro eta kantu herrikoi ugari egiten batetik, eta bestetik, Baleriano Mokoroa (1871-1941) komeriak eta gisakoak egiten.




Gachucha lau ekitalditako antzerki-lanaren amaierako azken agurra



Muga antzerki-obra, atalka argitaratu zuen 1954an

XIX. mende amaieran Teatro Berria sortu zuten Toribio Alzagak, Martzelino Soroak, Serafin Barojak eta Biktoriano Iraolak. 1907an teatrogintzari espazio berezia eskaini zioten bi aldizkari sortu ziren: Julio Urquijok *Revista Internacional de Estudios Vascos* sortu zuen, eta Tolosan *Euskal Esnalea* euskara hutsean argitaratzen hasi zen. Bigarren hamarkadaren hasieran Gregorio Mujikaren zuzendaritzapean *Euskalerriarren Alde* aldizkaria sortzen da. 1932. urtean *Antzerti* hilerokoa sortu zen.



*Jostuna* antzerkitxoa bi ekitalditan eratu zuen eta argitara eman 1956an


Giro honetan hasi zen Antonio Maria Labayen bere lehen teatro lanak idazten eta argitaratzen, Tolosan bereziki bizi zen giro kulturalen murgildurik, eta Euskal Herri mailan sortzen ari zen teatroaren inguruko aldizkarietan bere lanak argitaratu ahal izateko aukerarekin.

Errepublikara garaian euskaraz sortu ziren teatro-obra asko (itzulpenak, sormen propiokoak, kritikak, kronikak eta abar) *Antzerti* aldizkarian argitaratu ziren. Bertan jardun zuen Labayenek, Lopez Mendizabal, Amonarriz, Markiegi, Toribio Alzaga, Lizardi, Barriola, Tene Mujika, Zubimendi eta beste hainbatekin batera.

## ANTZERKI EGILEA


Antonio Maria Labayenek erabili zuen «txikia baina gurea» premisaz baliaturik, herri-teatroa zabaltzen eta indartzen saiatu zen. Bai egileak berak sortutako obren bitartez, bai eta itzulpenen edo antzerki-kritiken bitartez. Euskaltzale mugimenduan ari zela ere, bide honi eutsi zion hasieratik.

Antzerkigintza inguruan 1965ean idatzitako *Teatro euskarro* liburua aipatu beharrekoa da hemen: bertan, teatroaren inguruko teoriak azaltzen dira; 1973an euskaraz eman zuen argitara *Teatrogintza eta yakintza* titulupean.




Euskaltzaleak aldizkarian argitaratu zuen *Iparragirre* lana, izen bereko egileari buruzko lana

10



HABEk Antzoki Iluna sailean Labayenen hainbat lan argitaratu zuen. Hauen artean ageri dira *Euskal Eguna*, *Jokoa ez da errenta* eta *Petrikilo*



1977an Labayenen *Teatro osoa euskeraz* lana hiru liburukitan argitaratu zuen La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak.


Antzerkigintzan era guztietako eta gai desberdinetako obrak landu behar zirela zioen, entzulea ere anitza zenez gero. Era berean, gizartean ageri ziren problematikak bertara ekarri behar zirela irizten zion; halakorik beti antzerkiaren lege, arau eta neurrien pean osatu behar zirela aipatuz era berean.



1932an *Maya* lana eman zuen argitara, euskaraz eta alboan gaztelerazko itzulpena zuela

## ANTZERKI OBRAK

Antonio Maria Labayenek idatzitako obren artean, ondorengoak aurki daitezke: *Txinparta buruzagi* (1921), *Ostegun gizena* (1930), *Euskal Eguna* (1931), *Maya* (1932), *Mateo txistu* (1932), *Iparragirre* (1933), *Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti* (1935), *Irunxeme* (1935), *Muga* (1954), *Lurrikara* (1955), *Jostuna* (1956), *Petrikillo* (1956), *Jokua ez da errenta* (1960), *Galtzaundi* (1961), *Malentxo, alargun!* (1962), *Domejon de Andia*, *Gipuzkoako erregia* (1965), *California ku-ku!* (1967), *Agar'en seme... Ismael* (1973), *Perretxiko jatea* (1967), *Pestaburu* (1967) eta *Lapikoa* (1969)<sup>1</sup>.



Egan aldizkarian  
1961ean *Galtzaundi*  
lana eman zuen  
argitara

11



1930ean *Ostegun Gizena* antzerkia plazaratu zuen, umeei zuzendutako lana

<sup>1</sup> J. San Martin: «Antonio M.<sup>a</sup> Labayen Toledo (1898-1994)», *Euskera* XL, 2. aldia, 583. or.

*Petrikillo irri antzerkitxo*-a ekitaldi bakarreko komedia-lana da. Bertan ageri diren pertsonaiak, xelebreak eta gertakari barregarriak burutzen dituztenak dira. Obran zehar bertsoak eta kantuak ageri dira (ohi bezala).

Ekitaldi bakarrekoa da *Ostegun Gizena* antzerkia ere. Horko hitzaurrean dioenez, hurrei zuzendutako lana da hau, eta beraiantzat egin zuenez, eskolarik gabeko egun bat (Ostegun Gizena) hautatu zuen. Hizkera eta gertakizunak, hurrek ulertzeko modukoak dira —egileak hala nahi izanda— barrea arin eragiten duten horietakoak.

*Lurrikara* lana lau ekitaldiko tragikomedia da, eta lanaren buruan dioen bezala, «nigarra labur-irria luze» da. Antzerkia moja-etxe bateko klaustroan hasten da, eta gertaera 1936an kokatzen da, gerrate zibilaren hasieran. Bertan gudariak, mojak, gorriak, erreketek eta falangistak ageri dira.

*Su ta Gar* bi ataletako irri-antzerkia da. Bertan aseguratzaile bat eta bere bezeroak ageri dira hartu-emanetan.

*Gizon bizarpeituti eta emazte bizartsuti* lana ere bi ekitalditakoa da. Komedia honetan, emakume hiletsua eta hile gutxiko senarrarekin batera, komeriatan ageri dira bizargilea,



Lopez Mendizabalen argialetxean Labayenek obra ugari argitaratu zuen. Hauen artean dago barrea eragiteko 1935ean egin zuen antzerki-lana





«aundi-maundia», kaskarina eta kasik lan guztietan azaltzen den neskamea.

*Iparragirre* bi ekitalditako tragikomedia da, izen bereko pertsonaiaren inguruan eratutakoa eta gipuzkera herrikoian idatzia.



*Euskal Eguna* hiru ekitalditako antzerkia, 1930ean «Indarneurtzeetan» saritua izan zen Tolosan. Obran zehar bertso ugari ageri da, eta lanari amaiera ere bertsoak ematen dio. Labayenen lan gehienetan bertsoek leku propioa dute.

Obra hauez gain, antzerkiari buruzko hitzaldi ugari eman zuen. Hauen artean ditugu 1933an Donostiako Novedades aretoan eman zuen «Euskal Antzertiaren edestirako apur batzuek» eta 1935ean Donostiako San Telmo Museoan eskainitako «Euskal-Antzertiruntz» hitzaldiak.

Aipatutako lehen hitzaldian, «euskal antzertia Aberriaren egunsentiko igarle izatea nai genduke; euskaltasunaren intz suspergarri ulermenez ornitua bai baiñan orobat erriaren zirikalari ta laguntzaile»<sup>2</sup> dio.

<sup>2</sup> A.M. Labayen, «Euskal Antzertia'ren Edestirako Apur Batzuek», 1931, Donostia, 14. or.

Bertan ere, euskal antzerkia egile berrien beharrean zegoela dio, eta teatro herrikoia egiten hasi beharra dagoela. Honetarako, euskal folklorean sakondu behar zela zioen, janzkerak, pertsonaiak eta bestelakoak berreskuratzeko.



Frantsesetik itzultitako *Su ta Gar* lana Egan-en argitaratu zen 1966an



## ITZULPENAK

Sarako erbestetik bueltan Tolosara itzuli zenean, gerra aurrean eten behar izan zituen frantsesetik lehen itzulpenei indartsu ekin zien berriro, euskarazko teatroaren egoera apala berpiztu nahirik eta garaian sortzen ari ziren antzeztalde berrien joerei aurre egin nahirik (60-70. hamarkadetan).

Europar antzerkigileen lanak itzuli zituen batez ere. Hauen artean ditugu Dürrenmat, Bertolt Brecht, Max Frisch, Ionesco eta Castelao.

Lehen itzulpen-lanen artean 1933an Henriette Charasson-en *Sermon de mariage* lanaren *Irri itzaldia* lana dugu. Egile beraren *Separation* lana ere *Berezi* titulupean itzuli zuen beranduago.



Plautoren *Aulularia* lana itzuli zuen *Lapikoa* izenpean

Ionescoren *La jeune fille a marier* 1964an *Neskatilla ezkongai* itzuli zuen. Urtebete lehenago Durrenmatt-en *Gizona eta kidea* (*Der doppelgänger*) egina zuen. 1966an Max Frisch-en *Su-emailleak* (*Die brandstifter*) eta J.J. Rousseau-ren *Bastian eta Bastiane* eta *Mesner* itzuli zituen. H. Ibsen-en *Mamuak* lana (*Gengangere*) azkenetakoa dugu.

*Su-Emailleak* Max Frisch-en *Biedermann und die Brandstifter* (1962) lanaren itzulpena da. Pertsonaien artean burgesak, boxeolariak, suhiltzaileak, intelektualak eta neskameak ageri dira. Hau ere barre egiteko lana da.

Labayenek zioenez, itzulpenak egin behar ziren euskarazko teatroa aberastu nahi izan ezker; baina ez zuen onartzen «berrizalekeria bidegabeko»rik, alegia, itzultzeko garaian ere, egile onak eta taxuzko obrak aukeratu behar zirelako ustea defendatzen zuen. Honengatik zioen ez zuela berri eta zaharraren artean bereizten, baizik eta onaren eta txarraren artean.

Max Frisch-en lana  
*Su-Emailleak*  
titulupean itzuli zuen  
eta argitaratu 1962an



Obrak ondo aztertu eta hautatu behar zirela zioen, baina kontuan edukiz beti azken hitza ikusleek zutela. Honengatik lehen iritzia ikusleek eman behar zutela zioen, eta era berean haiei begira landu behar ziren lanak; ikusleak heztearekin batera, hauen nahietara makurtuz.

*Gizona ta Kidea* lanaren hitzaurrean honakoa dio: «Oraingoak berriz arroputz, publikoa astotzat, ez jakintzat artzen dute. Berak bakarrik dira jakintsu, jaun eta jabe... Bera «vanguardista», aurrerazale, orokor, universal omen. Nere motzean, erantzun nezaioke nik retaguardiakoa izatea naiago dudala»<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> A.M. Labayen, *Gizona ta Kidea*, 1963, 5-6 or.

Honen haritik, teatro berriaren kontra ez zegoela zioen, bai ordea gehiegizko mugarriz eta abangoardiazko esnobismoz beteriko lanen kontra. Euskarazko teatroa itzulpenekin, sormenezko obrekin, eta teatro berriarekin indartu eta aberastu behar zela aldarrikatzen zuen. Lope de Vegak «el pueblo es necio y lo paga, hablémosle en necio para darle gusto» iritziaren kontra zegoen, azken hitza ikusleek zutela baitzioen.

Japoniar *Taniko* antzerkitxoa itzuli zuen, Arthur Walley-ren ingelerazko itzulpenetik eta Bertold Brecht-en alemanerazkotik (*Der Ja Sager* eta *Der nein Sager*) abiatuta. Obraren hitzaurrean dioenez, «Euskal-teatro argala indartzeko ez dago, apika, gure enbor zaarrari txerto berriak itsastea bezelakorik»<sup>4</sup>. Era berean, gazteei ere zuzendutako obra dela dio, munduko zorigaitzoei aurre nola egin ikas dezaten.

<sup>4</sup> A.M. Labayen, «Bai esalea» eta «Ez esalea». 1. or.

## EUSKALTZALETASUNA

Dударик gabe Labayen teatro-gizona eta euskaltzalea izan zen nagusiki. Idatzi zuen obra euskaraz burutu zuen; gazteleraz idatzi zituenetan ere, euskara da idazgaia askotan.

Euskara mintzatuarekiko zuen grina ere nabarmentzen da, euskara batuarekiko nondik norakoak kezkatzen zuen hartan. Honengatik «ez dakienak aitzakirik ez» dioenean, argitzen du zein den hizkuntzarekiko bere konpromezu pertsonala.

## EUSKARA BATUA

Labayen R.M. Azkuek proposatu zuen «gipuzkera osatua»-ren aldekoa zen, eta euskara batua sortzeko ematen ari ziren prozeduren, gomendioen eta erabakien kontra gogor egin zuen askotan (nahiz eta euskara batu bat sortzearen alde zegoen).



Euskara batuari buruzko idazlanen artean *Sasi Batasuna* lana ageri da, bertan batasun-prozesua kritikatzeko du, besteak beste

Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarraren ondoren, hainbat gomendio okertzat jo zituen, eta urtebete beranduago txosten bat aurkeztu zion Euskaltzaindiari. Azken honek arreta handiegia jarri ez zionez, *Karmel* aldizkarian argitaratu zuen.

Arantzazuko Biltzarraren ondorengo txosten honetan, besteren artean «h» letraren auzia aipatzen zuen, Labayenek erdibideko posizioa hartu zuen; alegia, letraren erabilera mugatu beharra zegoela (garai hartan P. Lafittek eta P. Diharcek ziotenari jarraituz).

Bestetik, terminologia «batua» kritikatzeko aurre-eztabaidarik gabe onartutako arauak onartezinak zirelakoan. Txosten honen amaieran hainbat gomendio egiten zizkion Euskaltzaindiari: «h» letraren erabileraren ingurukoak, terminologia eta neologismoen sorrerari buruzkoak, eta sintaxiari eta adizkiari buruzkoak.


Idazle berriek sortzen ari ziren «euskara batua» desegoki eta «pseudo-batua» gisa erabiltzen zutela zioen, hauena ez bezala Agirre, Azkue, Orixe, Kirikiño, Etxepare, Lizardi, Ibiñagabeitia, Urruzuno, Muxika, Barbier, Larreko eta beste hainbat hizkera goraiatuz.

Halere, Euskaltzaindiaren «gehiegikeriak» nabarmentzen zituen arren, Arana Goiriren purismoak baztertzen zituen, euskararentzat kaltegarriak zirelakoan. Eta euskara batua lortu beharra zegoela argi utzi zuen beti: «El principio de unidad debe prevalecer sobre el de anárquica pluralidad»<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> A.M. Labayen, *Alternativas para una factible unificación del euskera*, 1984, Hitzaurrea, 23. or.

Azken finean Labayen erdibidean mantendu zen beti euskara batuaren auzian. Eta urteetan artikulu, liburu eta hitzaldien bitartez prozesua kritikatzeko egon ondoren, bere jarrera bera aldatu ondoren, Akademiak 1919an hartutako erabakiei jaramon egin eta azken 50 urteetan euskal idazleek mantendutakoa jarraitzeko erabakia hartu zuen.

Antonio Maria Labayen idazle bikaina zen, eta euskararen kalitateari ere garrantzia handia ematen zion. Honengatik arau ortografikoez gain, sintaktikoak eta morfologikoak eman eta jarraitu beharra zegoela aipatu izan zuen. Azken finean euskara egokia eta aberatsa erabiltzearen aldekoa zen.



## EUSKALTZAINDIA ETA EUSKERAZAINTZA

Euskaltzaindiarekin hika-miketean ibili zen garaian, «h» letraren auzia medio, erakundeari herritarren eta hiztunen borondatearen kontra joan izana egozten zion.

Halere, desadostasunak barrutik konpondu behar zirela zioen. Hots, Euskaltzaindiarekin bat ez zetorren arren hainbatetan, Euskaltzainditik bertatik aurre egin behar zitzaizela arazoei uste zuen. Honengatik beti jardun zuen kritikak eta ezadostasunak agertuz, baina Euskaltzaindia bertatik.

Era berean, Euskerazaintzaren funtzioa ez zuen begi onez ikusten, «kontra-akademia» bat zelako horretan, gauzak horrela ez zirela zuzen eta taxuz konponduko baitzioen.

Euskaltzaindiaren eta Euskerazaintzaren inguruko artikulu asko idatzi zuen *Deia*, *El Diario Vasco*, *La Voz*, *Agur* eta beste egunkari nahiz aldizkarietan, iritziak batzeko asmoz.


*Alternativas para una factible unificación del euskera* lanaren hitzaurrean honakoa dio Euskerazaintzari buruz: «A fin de contrarrestar esa campaña surge Euskerazaintza. A mi entender esa iniciativa resultaría contraproducente. Más eficaz resulta en esos casos combatir desde dentro a la academia oficial Euskaltzaindia que no creando otro organismo en hostil disidencia que origine luchas intestinas funestas para nuestro idioma»<sup>6</sup>.

Euskaltzaindia hainbatetan kritikatu zuen arren, beti defendatu zuen euskarari egokitasuna emango zion erakundea zela berau: «Euskaltzaindia es la institución indicada para llevar a buen puerto la restauración de nuestra lengua... El pueblo vasco-parlante es, claro está, dueño de su lengua pero precisa de una institución académica para que no degenere en su desarrollo y correcto empleo»<sup>7</sup>.

Bestalde, kritika gogorrak bota zituen arren, Labayenek jakin izan zuen iritziz aldatzean, halakorik onartzen eta asumitzen.

1964ko abenduaren 18an izendatu zuten euskaltzain oso, A. Zavala eta J. San Martinekin batera. Hirurok ez zuten besteren lekurik bete, hiru euskaltzain berri baitziren.

Beranduago, Labayenek utzitako aulkia bete zuen Patxi Goenagak. Sarrera-hitzaldian Goenagak dioskunez: «Proposatzen zen batasun bidearen kritikatzaile izan genuen. Oso kritiko, gainera. Baina bide hori kritikatzeko zutenekin ere, bere nolabaiteko bidelagunekin ere, kritiko ageri zaigu»<sup>8</sup>.



---

<sup>6</sup> A.M. Labayen, *Alternativas para una factible unificación del euskera*, 1984, Hitzaurrea, 11. or.

<sup>7</sup> A.M. Labayen, *Alternativas para una factible unificación del euskera*, 1984, Hitzaurrea, 22. or.

---

<sup>8</sup> P. Goenaga, *Euskaltzaindian sartzea*, Euskera XL (2. aldia), 652. or.

20 E. Mokoroaren heriotzan, ageri zuen musika-zaletasunak bultzatuta neurri batean, «Mocoroa, apostol de la música» lana idatzi zuen BRSVAP buletinean<sup>9</sup>. Bertan, euskal musikagilea gorai patzen du, sentitzen zuen miresmena azalduz.

Errepublikara garai hartu-eman estuetan ibili zen Joseba Ariztimuño *Aitzol*-ekin. Hauek Euskaltzaleak taldea osatu zuten, teatroa bereziki eta literatura orokorrean, landu eta indartu nahi zuen mugimendua. Halere, gerrate zibilarekin bertan behera gelditu zen, bertan zebiltzan autoreek atzerrira alde egin behar izan zutelako, besteak beste.

Euskaltzaleak talde hau, Tolosa aldeko idazleez osaturik zegoen; izan ere, 30. hamarkadan politika eta kultura inguruko mugimendu nabarmena zegoen alde horretan. Taldean izan ziren, besteak beste: Labayen, Orixe, Lizardi, Aitzol eta abar.



Joannes d'Etcheberriri buruzko lana aipagai da Antonio Maria Labayenen obran; idazle lapurtarra miresten zuen, eta haren inguruko ikerketa-lana burutu zuen

<sup>9</sup> BRSVAP, XV, 2. koadernoan.



Aitzolekin harreman estua mantendu zuen. Elkar estimatzen zuten, eta honengatik hainbat lan elkarrekin burutu zuten. Aitzol atxilotu zuteneko aurreko gauean, Zokoan txokolatea hartu zuten Aitzolek eta Labayendar senar-emazteek.

Orixeren lagun mina zen Labayen. Idazle eta pertsona gisa ondo konpontzen ziren eta estimatzen zuten elkar. Courss-en (Pabe inguruan) elkarrekin izan ziren konfinaturik Orixek ihes egin zuen arte (Labayen beranduago atera zen, atxiloketa-gunetik atera zuten egunean).



Beste egileei buruz idatzitako artikuluen artean Mokoroaren omenez burutu zuena ageri da

21



Hil ondoan Lizardiri, Euskal Gazteriak antolatuta, 1934ko maiatzaren 26an Aberri Etxean ageri dira ezkerretik eskuinera: Labayen, Lauaxeta, Orixen, Lupe Urkiola, A. Garmendia, P. Sansinenea, Aitzol, D. Ziaurriz eta F. Leunda

Lizardirekin ere hartu-eman estua izan zuen, Mitxelenarekin beranduago izan zuen bezala. Azken honekin, urteetan zehar gutun ugari idazten jardun zuen, bi egileak idazten ari ziren obren inguruko nondik norakoak aipatzeko, obraren bat non argitara zitekeen esateko bata besteari, euskara batuaren auzia zela-eta bakoitzaren iritziak aditzera emateko, eta obrak argitaratzeko dirua behar zutenean, diru-iturrien berri emateko.

Oteiza eskultorea oso gogokoa zuen Labayenek, baina inoiz ez zion barkatu gure idazleak Oteizari, euskara ez jakinagatik, euskararen inguruko iritziak bota izana. Gainera, Antonio Mariak ez zuen onartzen euskara ez ikastea «denbora faltagatik» edo «ikasten zaila izanagatik» (hauek zituen aitzakiatzat).

Bixente Latiegirekin harreman estua izan zuen urtetan. Pertsona gisa estimatzen zuen arren, autore eta euskaltzale bezala bikaina zelakoan aipatzen zuen askotan.

Iñaki Eizmendi *Basarri*, euskal literaturaren egile oparoenetakotzat zuen. Euskal pizkundeko egile nabarmenetakoa zela zioen, bertsolari fina izateaz gain, hizlari bikaina eta artikulugile bikaina ere bazelakoan.

Villasante eta Zurutuza gorai patzen zituen, euskara batuaren auzia eztabaidagai zen garaian batez ere. Hauek gain Latxaga eta Arizmendiari ere estimatzen zituen, bere idazkietan hala azalduz.

Kardaberaz, Mogel, Txomin Agirre, Onaindia, Erkiaga, Lino Akesolo, Abeletxe, A. Zubikarai eta goian aipatutako beste egile askoren lanak gustura irakurtzen zituela zioen.



## BESTEAK ETA LABAYEN

Juan San Martinek «Euskal literaturan lehen mailan jarriko nuke egile eta eragile zen aldetik» diosku<sup>10</sup>.

P. Lafitteren hitzetan, Labayen dugu antzerki kontuetan Euskal Herri mailan izan den aditu nagusietakoa. Era berean antzerki-egile oparoenetakotzat dauka, eta teatroa egiteko modu tradizionalaren lekuko bikaintzat.

Iñaki Barriolaren ustez, garaiko teatro-zaletasunaren eta sormenaren gidari eta bultzatzaile nagusia izan zen Labayen. Teatroaren inguruko aldizkariak eta sormen-obra askoren egile eta pizgarri ere, Antonio Maria izan zela zioen.

Koldo Mitxelenak, urtetan Labayenekin hartu-eman estuak izan zituenak, dioskunez, Labayeni zor diogu neurri batean egungo euskal teatroa, momentu askotan bultzagilea bera izan baitzen, aditu bikaina eta kementsua zen neurrian.

Patri Urkizuk, berriz, Labayenen merituak euskal antzerkian kontaezinak direla aipatu izan du egilearen inguruan burutu dituen ikerlan guztietan.

Antonio Maria Labayen antzerkiaren inguruan nabarmendu zen, horretaz duda-izpirik ez dago: sormen-lanak ugariak dira, itzulpen-lanen modura; antzerkiari buruzko kritikak eta entsegu-lanak ere asko izan ziren.

Halere, aipatzekoak dira burutu zituen beste lanak, hala nola biografiak, Tolosari buruzko idazkiak, paperaren eta papergintzaren inguruko entsegu-lanak, musika eta mendiari buruzkoak, eta abar luzea.

<sup>10</sup> J. San Martin: «Antonio M.<sup>a</sup> Labayen Toledo (1898-1994)», Euskera XL (2. aldia), 579. or.


Euskara batua sortzen ari zen garaian ere, zeresan handia izan zuen, eta beti nondik norakoak azaltzen saiatu zen, prozesu berri hark eduki zitzakeen huts eta abantailak bere lekuan jarriz.

Garaiko beste idazleekin izan zituen hartu-emanek, fruitu ugari eman zuten, bai maila pertsonalean, bai eta literarioan ere, hauei esker lan askok argia ikusi baitzuten, eta publikazio ugari sortzeko aitzakia izan baitzen.

Saran erbesteraturik igaro behar izan zituen urteak, jadanik bazeukan euskara aberasteko baliagarri izan zitzaizkion. Eta lehendik euskara aberatsa erabiltzen zuen arren, Saratik bueltan ukitu ederragoekin aurkitzen ditugu bere lanak.

Dudarik gabe Antonio Maria Labayen izan da euskarazko teatrogintzan erreferente nabarmen eta oparoenetakoa.

24



*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1435-X (Obra osoa)  
84-457-1438-4

L.G.: BI-2.688-99

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística